

ek!


eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko azaroak 21 - 1375 zenbakia

US
TEK
ABE
TXARANGA



25 URTE
KALEAK ALAITZEN



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

dena
sukaldean
hasten da

dica fama
SUKALDEAK SOFAK

www.urrategiinteriorismo.com • Azpeltia Aretxe 9 Eibar Arzagaite 27



Bi emakumetik batek indarkeria jasan du Euskadin



Ez da
zure arazoa
soilik,
gurea ere
bada

azaroak
25

Emakumeen
kontrako Indarkeria
Desagerrarazteko
Nazioarteko Eguna

DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU **24 h**

900 840 111



araba **álava**
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia diputación foral

GIPUZKOA
foru aldundia diputación foral

EUDE
foru aldundia diputación foral

Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



Jarraitu aktualitatea gure webgunean eta sare sozialetan



Ustekabe txarangak 25 urte bete ditu. Mila kontzertu, mila toki eta mila pasarte, asko bizi izan du taldeak mende laurden honetan. Maialen Bravo, Danel Montero eta Josu Mendicute Ustekabeko kideekin egon gara txarangaren iragana, orainaldia eta etorkizunari buruz berbetan. Bideo hau eta beste asko ...eta kitto!-ren YouTubeko kanalean ikus daitezke.

www.etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Silbia

Hernandez, Irune Jaio eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Irune Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOAK

943 20 67 76

AZALA

Ustekabe

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Eibarko Mendiak Bizirik herri plataforma sortu da

Eibar, Soraluze eta Bergarako udalerrietan aurkeztu duten parke eoliko baten proiektuak piztutako kezkek bultzatuta, eibartar talde batek Eibarko Mendiak Bizirik herri plataforma sortu du.

Arena Power Solar 10 enpresa andaluziarrak 200 metroko luzeera izango duten 6 makro-eoliko zentral eraikitze proiektua aurkeztu du. Proiektu hau Eibarko eta inguruko mendietan kokatzea aurreikusten da. Energia garbien izenean, proiektua gauzatuko balitz gure natura eta landa ingurumen, ondare historiko eta gizarte inpaktua nabarmena izango litzake.

Proiektuaren garapenak azpiegitura astunak eraikitzea eskatzen du: bide berrien irekiera, plataforma zabalak, eta zimentazio-lanak, besteak beste. Horrek guztiak paisaia naturalaren eraldaketa sakona, biodibertsitatearen galera, eta tokiko komunitatearen bizi-kalitatean eragina ekarriko luke. Gainera, energia ekoizpena tokian sortu arren, ez litzateke tokiko kontsumora bideratuko, eta onura ekonomikoak ez lirateke bertako herritarren esku geratuko.

Eibarko Mendiak Bizirik herri plataformaren sorrera ingurumenarekiko konpromiso sozialetik dator, eta helburu nagusia Eibarko mendien balio ekologiko, kultural eta soziala defendatzea da.

Taldearen ustez, energia berriztargarriak beharrezkoak dira, baina ez edozein preziotan. Taldeak azpimarratu nahi du mendia ez dela baliabide ekonomiko hutsa, zaintza, historia eta bizitzaren lekua dela. Ezin dela garapen jasangarria izan, baldin eta ingurumena suntsitzen bada.

Hori dela eta, plataforma proiektuaren aurkako alegazioak aurkezteko lanean ari da, eta datozen asteetan informazio kanpaina bat jarriko du abian, kaltetutako herriei kalte asko eta onura gutxi eragiten dizkien proiektuaren xehetasunak jakinarazteko.

Eibarko mendien defentsan, dei egiten diegu herritarrei, erakundeei eta gizarte-eragileei ahotsa altxatzera eta ekintzan parte hartzera, ekologia eta ingurumenarekiko koherentziaz jokatzuz.

Eibarko Mendiak Bizirik

Hortik esanak



Garrantzitsuena da ekologismoak, bereziki, eta ezkerak, oro har, berriro aldarrikatzea jomugarena, eta hori ez da zertan eman koordinatu kapitalista eta kontsumistetan. Ni ez naiz saiatzen bizitza ona zein den definitzen, baina bai aukerak eraikitzen benetako askatasun bat eta betetasun-esperientzia bat inauguratzeko, eta ausartuko naiz esatera horiek baino hobeak direla. Hainbat baldintza proposatzen ditut, oinarrizko beharrak beteta edukitzearekin, denbora librearekin eta atmosfera bizigarriarekin zerikusia dutenak. Hauek gabe, inor ez da libre. Hortik abiatuta, sinesmenak sortzea, bakoitzak bere grina handiak esploratu ditzan, izan edertasunaren bidez, sentsualitatearen bidez, bizi oparotasunaren bidez, eta abar. Nire ustez, hori da lortu nahi dugun benetako luxua, eta horrekin irabaz diezaiokegu neoliberalismoari desioaren bataila.

Emilio Santiago, antropologo klimatikoa

Haur goiztiarrentzat ama-esnea ez da elikagai bat soilik, sendagai bat da. Sei hilabetetik beherako haurrak dituzten emakumeek soilik izan daitezke emaille, epe horretan esnearen propietateak bereziki egokiak direlako jaioberri ahulenentzat. Emailleek emandako esnea Neonatologia unitateetako haur kalteberenentzat zuzendua da soilik: goiztiar handiei, oso pisu txikiarekin jaiotako haurrei edo patologia zehatzak dituztenei, baita amek edoski ezin duten kasuei ere. Beti mediku-aginduekin.

Lehen, Donostiara joan jaioberri batekin joan beharra zegoenez, emakume askok bi aldiz pentsatzen zuten. Orain, Eibar bilgune dugula, ia «bandejan» jarri dugu eskualde osorako.

Miren Aguirregomezkorta, emagina

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PITX → Dejada, pelota jokoan. "Atzeko kuadrant zeguala, Retegik pitx, eta Arretxe ez zan ailllegau".

PITXADA → Pelota jokoan, dejada. "Pitxada eginda irabazi eban azkenengo tantua".

1955

Eibarko Musika Banda, Santa Zezilia ospatzen

Eibarko Musika Banda asko ahuldu zen 1949ko zatiketa-ren ondorioz, baina kanpotik lanera etorritako jendeari esker, 1950eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, Eibarrek probintzia osoko talde oneneta-ko bat izateko lortu zuen, Agustin Zuluagaren zuzendaritzapean.

EIBARKO UDAL ARTXIBOA



Farmaziak

BARIXAKUA 21
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 22
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 23
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
ASTELEHENA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
MARTITZENA 25
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 26
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUENA 27
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
BARIXAKUA 28
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Elisa Parada Fernandez.** 97 urte. 2025-XI-02.
- **Luis Maria Portu Alberdi.** 95 urte. 2025-XI-13.
- **Carmen Caravantes Martinez.** 81 urte. 2025-XI-13.
- **David Aguado Gil.** 95 urte. 2025-XI-14.
- **Juan Luis Olañeta Urreta.** 85 urte. 2025-XI-15.
- **M^a Lourdes Zuazo Alzaa.** 69 urte. 2025-XI-15.
- **Jose Luis Ramon de la Vega.** 62 urte. 2025-XI-18.

Lagunen arteko ospakizunez beteta etorri zaigu azaroa

S.H. Azaroaren 6an elkartu ziren 1947. urtean jaiotakoak, beraien kinto-jaia ospatzeko. 1950. urtean jaiotakoek, berriz, aurreko egunean, azaroaren 13an ospatu zuten beraien kinto-jaia, eta hurrengo egunean, barixakuan, 1948an jaiotakoen txanda izan zen.

Ondo Nai elkarte gastronomikoak 50. urte bete ditu aurreko eta majo ospatu zuten aurreko zapatuan, trago batzuk hartu eta, ondoren, elkarrekin bapo bazkalduta.



1948. urtean jaiotakoak.



Ondo Nai elkartekoak.



1950. urtean jaiotakoak..



1947. urtean jaiotakoak.



Algaraklown Ospitaleko Pailazoen 2026ko egutegia salgai dago Eibarren

S.H. Algaraklown Ospitaleko Pailazoak irabazi asmorik gabeko elkar-teak 2026rako egutegia kaleratu du. Beste batzuetan bezala, Eibarren erosi ahalko da argazki koloretsu eta alaiekin betetako egutegia, 10 eurotan, honako toki hauetan: Coviran supermerkatua (Ego-Gain), Ultramarinos Txema (Amaña), Ogiberri Muxu (R. Galdos) eta La Salle Isasi ikastetxea.

Indarkeria matxistak salatzeke hainbat ekimen antolatu dituzte martitzenerako

S.H. Azaroak 25 (martitzena) Indarkeria Matxisten Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dira egun horretarako. Horrela, martitzenean *Indarkeria sexistaren aurkako matxak ehuntzen* izeneko ekintzarekin, indarkeria sexista salatuko da aurten ere. Eibarren, ekimen honen bultzatzaileak Altzoa alargunen elkarteko kideak dira, Andretxea Berdintasun Zerbitzuarekin, Emakumearen Mahaiko gainerako kideekin eta

boluntarioekin lankidetzan. Herriar guztientzat zabalik egingo den ekintza kolektiboa 11:30ean hasiko da, Untzagan. Eta horren ostean, 13:30ean egingo da indarkeria matxistaren kontrako urteroko elkarretaratzea, *Indarkeria matxistarik ez! Aitortza, erreparazioa eta memoria* lelopean. Eta Matraka talde feministak manifestazioa deitu du, 19:00etan Untzagan, *Erreakzioari lubaki feministatik erantzun* goiburuekin.



DEPOR TABERNA
Y. Etxebarria, 16 943 94 49 12
deportaberna@deporcibar.com

- EGUNEKO MENUA astehenetik ostiralera 13:00etatik 15:00etara
- ASTEBURUETAN razioak, otartekoak, plater konbinatuak...
- GOSARIAK egunero
- TALDEENTZAKO menuak egiten dira

FUNEUSKADI (Donostia) **FUNERARIA MUGICA** (Pamplona)

TANATORIO EIBAR **FUNERARIA MUGICA**

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Elgoibar: Kaxilari, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Erreusko bulegoa: Marques de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Erreus · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Sukaldaritzarekin lotutako ekimenekin sanandresetara gerturatzen goaz

Urtero lez, aurtan ere gastronomiari lotutako hainbat hitzordu dauzkagu San Andres egunaren aurretik, jairako girotzen joateko.

SILBIA HERNANDEZ

Aurreko zapatuan San Andres XXI. eskolarteko Bakailao Lehiaketa jokatu zen Errebalen, parte-hartze zabalarekin, eta epaimahaiak Eibar BHI-ko Ekhi Castro eta Unai Agudo eta Aldatzeko Aitana Hernandez eta Ruth Marron saritu zituen. Hori amaitu eta, jarraian, Bacalaos Alkorta VII. pintxo-lehiaketaren finala hasi zen. Edizio honetan Durangoko Kortabitarte anaien proposamenak bi sari eraman ditu, *Paella de bacalao* pintxoarekin: bakailaoaren tratamendurik onenaren saria, eta lehiaketako sari nagusia. KM 0 produktuen aurkezpen onenaren saria, berriz, La Vieja Iruña jatetxeko Sergio Lergak eskuratu du.

Eta bihar (zapatua) Errebal Plazia berriz ere sukalde bilakatuko da, Gipuzkoako Azoken Sareak, Eibarko Udalarekin elkarlanean antolatu duen *Azokatik Mahaira* sukaldaritza-tailerrarekin. Anne Otegi sukaldariak eta Aitziber Aizpuru nutrizionistak bideratuko dute, eta herritar guztientzat egongo da zabalik. 11:00etan hasi eta ordu eta erdi inguru iraungo du. Aurreratu dutenez, “Errebalgo azokan erositako bertako eta garaiko produktuekin errezeta bat prestatuko da”.

Eta bihar ere, baina Untzagan, Txistorra Eguna ospatuko da, Eibarko Txirrindulari Elkartearen eskutik. Jaiaren XXI. edizioa izango da, eta CD Urki futbol taldea eta Jesus Angel Sainz klubeko zuzendaritzako kide eta medikua izandakoa omenduko dituzte. Ekitaldia 11:30ean hasiko da.

Domekan bakailaoa izango da berriz ere jaun eta jabe Errebal Plazan, han jokatu baita Eibarko Udalak antolatutako XXXI. Bakailao Txapelketa “San Andres saria”, 11:00etatik aurrera. Jatea gustoko baduzue, badago non aukeratu. On egin!



ARGAZKIAK. EIBARKO UDALA.

Aurreko asteburuko ARGAZKIAK ikusi nahi?





Eibarko Mendiak Bizirik plataforma eratu berrira batzeko gonbidapen irekia

S.H. Dagoeneko Eibarko Mendiak Bizirik herri plataforma hasi da Eibar, Bergara eta Soraluezko mendietan 6 makro-eoliko zentral elektriko ipintzeko Sevillako enpresa batek aurkeztu duen proiektuaren aurkako alegazioak prestatzen. Salatu dutenez, “Untzaga plazako hiru torre beharko genituzke makro-aerosorgailu bakoitzaren luzeera gainditzeko, 14.000 zuhaitz moztu beharko dituzte. Errotak instalatze-

ko behar diren lanek bide berriak, plataforma zabalak, zimentazioak zarata eta gure mendien ondarearen galera ekarriko luke. Ekologia-ekin, ingurumenarekin eta memoria historikoarekin koherentziaren alde, Eibarko defentsaren alde, herritar, erakunde eta gizarte-eragileei dei egiten dizuegu gurekin kontaktuan jarri eta taldean parte hartzeko”. Harremanetarako: eibarkomendibiziak@gmail.com.

Egoaiziak 25 urteko ibilbidea ospatzeko ekitaldia egingo du bihar Portalean

S.H. Bihar (zapatua) ospatuko du Egoaizia elkarteak bere 25 urteko ibilbidea, Portalean egingo den ekitaldi irekian, 11:00etatik 12:30era. Topaketa hau elkartearekin urte hauetan nolabait lotura izan duten pertsona guztientzat prestatu dute, “parte hartu dutenentzat, lagundu dutenentzat edo, besterik gabe, gertutasuna senti-

tu dutenentzat”. Ekitaldiaren hasieran, Egoaiziaren ibilbidea eta historia azaltzen dituen bideoa proiektatuko da, urte hauetan bizitako esperientziak eta egindako lanaren irudiak partekatuz. Ekitaldia piskolabisarekin amaituko da, “25 urteko konpromisoa, elkartasuna eta adiskidetasuna ospatzeko”.



**Coro
Zubizaray Aguirregabiria**

11. URTEURRENA
2014/06/23

**Calixto
Ulacia Beristain**

4. URTEURRENA
2021/11/20

*“Beti egongo zarete
gure bihotzetan”*

- ALABAK ITZIAI, AMAIA ETA NEREA ETA FAMILIA -

Eta, Ustekabean, 25 urte pasa dira

Ustekabe txarangak mende laurdena bete du. Urteak hegan joan dira, mila pasarte bizi izan dituzte eta ehundaka kale alaitu, 2025era sasoi betean iritsiz. Txaranga ia hasieratik dabilen Josu Mendicute, ia bizi erdia bertako kide izaten diharduen Danel Montero eta fanfarrean azkenetariko fitxaketa izan den Maialen Bravo elkartu ditugu Ustekaberi buruz berba egiteko.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Josu Mendicuterentzat urte hauek “azkar pasa dira”. Oroitzapen asko ditu, izan ere, umorez gogoratzen duenez, “txarangako zaharrena naiz aspaldi”. Fanfarrea sortu eta hilabete gutxira sartu zen, sorrerako taldean egon ziren lehen bajak ordezkatzeko. “Txarangako gazteenak baino urtebete gazteagoa nintzen eta, saxofoia jotzen zuenak lagatzen zue-nez, sartzea eskaini zidaten”, azaldu digu. 14 urte zituen eta “demaseko ilusia” egin zion.

Danel Monterok 10 urte daramatza bandan. Josu bezala, Musika Eskolako ikaslea zen bera eta bertako banda txikian jotzen zuen. Handik Eibarko Musika Bandara pasa zen eta Ustekaberen entsegu batera gonbidatu zuten. “Irailean egin nuen lehen entsegua eta urrirako kalean nengoan jotzen”, gogoratzen du.

Ustekabe sortu zenean, Maialen Bravo oraindik ez zen jaio ere egin (2004koa da). “Ustekabean sartu den jendearen azken txandakoa naiz,



orain dela bi-hiru urte, eta nire sentazioa da atzo sartu nintzela. Oso ondo pasatzen dugunez, oso azkar pasatzen da denbora”, esan digu. Bera ere Musika Eskolatik dator eta eskolak Ustekaben duen garrantzia azpimarratzen du.

Josuk gogoratzen duenez, “txaranga sortu zenean, kide guztiak Musika Eskolako kide aktiboak ziren, nagusienak 18 urte zituelako. Orduan, ondo ezagutzen zuten eskolako jendea eta errazagoa zen ikasleak zuzenean fitxatzea. Proiektua heldu den neurrian, Musika Eskolarekin oso harreman estua izaten jarraitzen dugu, gure jatorria izateaz gain gure harrobia dela sinesten dugulako, eta musika-tresna bakoitzeko ikasleekin hain hartu-eman zuzena izan ez arren, beti begiratzen dugu ea dagoen norbait taldean sartzeko moduan”.

Josuren iritiz, “25 urte hauetan pasatu garen askorentzat Ustekabe gakoa izan da instrumentua jotzeari ez uzteko. Etapa kritikoa dago 15-18 urte inguruan eta ikusten baduzu ikasten ari zaren tresna horrekin zerbait egin dezakezula, eta hori jai giroarekin, adineko jendearekin beste plan batzuk egitearekin eta abar lerrotatuta badago, motibatu egiten zaitu jarraitzeko eta instrumentua maleta batean gordeta ez uzteko”.

Sasoi betean

Maialenen iritiz, Musika Eskolako musikarientzat bide naturala izan daiteke eskolatik Ustekabera pasatzea. Berak eta perkusioko kideek horrela bizi izan dute behintzat. Noski, norberak bere asmoak dituela azpimarratzen du eta, bestetik, txarangak ere kopuru jakin bati eman diezaiekola tokia.



Goian, Ustekaberen lehen taldea. Behean, aurreko zapatuan, Ustekaben dabiltzan eta ibili direnak elkarrekin, txarangaren 25. urteurrena ospatzen. USTEKABE

Gaur egun, kide aldetik, sasoi betean dago Ustekabe, baina beti ez da horrela izan. “Sasoi batean, baxuen behar handia zegoen. Egoera kritikoa zen, bakarra zegoelako eta tronboi- edo bonbardino-joleak aurkitzea zailena izaten delako”, gogoratzen du Danelek. “Orain, idealena izango litzateke multi-instrumentistak izatea, baina sekzio bakoitzeko bost lagun gaude”, txarangaren beharrak asetuta daudela adieraziz.

Josuk dioenez, “gaur egun Euskal Herrian txaranga gutxi egongo dira

guk baino kide gehiago dituztenak. Gainera, ez dugu 20-30 laguneko taldea sortu nahi, gauza asko aldatzen direlako antolaketan eta arlo musikalean”.

Danelen ustez, “ondo antolatuta gaude”. 16-18 lagun ibiltzen dira normalean eta, tresnei dagokienez beharrak asetuta edukitzeaz gain, beste arlo batzuk indartu dituzte: “Talde barruan kantuen partiturak egiteko gaitasuna duen jendea dugu eta, ondorioz, kantu berriak sartzen ditugu etengabe”.



25 urtetan zehar herriko musikari asko pasa dira Ustekabe txarangatik eta askorentzat familia bihurtu da. USTEKABE

Normala denez, 25 urte hauetan erreperitorioa moldatzen eta handitzen joan dira, sasoi, egoera eta gustu berrietara egokituz. “300 kantu inguruko erreperitorioa dugu”, diosku Josuk.

Jai giroaren gorabeherak

Urtean 50 aktuazio inguru eskaintzen ditu Ustekabek. Uda partean mugitzen dira batez ere, jaien sasoa delako, baina bestelako ekintzatan ere ibiltzen dira, kintadetan adibidez. Gainera, urte hauetan mila saltsatan ikusi ditugu eta diskoa ere kaleratu dute: Eibar-ko Kantak (2021), herriko kantu zaharrekin.

Estudioan eroso egon arren, kalea da euren bitzitokia. Euskal Herriko mila tokitan, Katalunian, Frantzian eta Sevillan aritu dira, besteak beste, eta euren musikak behar bat baldin badu, jendea da. Jendea animatzea da txarangaren nahi handiena eta hor sortzen den hartu-emanaren berebizikoa da.

Esperientzia zoragarriak bizi izan dituzte han eta hemen, baina jai giroan ibiltzen direnez, egoera deserosoak ere bizi izan dituzte. “Egoera txar-txarrik ez zait tokatu, baina jaietan, ordu txikietan, eta alkohola eta beste gauza batzuk tarteko, jendea astuna izan daiteke. Dena dela, txarangako kideak alboan izanda oso seguru sentitzen gara”, diosku Maialenek.


Danelek eta Josuk, oster, bai gogoratzen dute egoera deserosoren bat: “Batuetan jendeari gogoratu behar diozu gure espazioa errespetatzeko. Instrumentuekin gaude, ezpainak tresnara itsatsita ditugu askok, eta min hartu dezakegu”, ohartarazten du Danelek. Iraganera begira, Josuk zera gogoratzen du: “Gertatu izan zaigu kalean jotzen egon eta auto bat bozina jotzen pasatzea, jendea txilioka, eta abar. Bestalde, orain dela 20 urteko bideoak ikusiko bagenitu, eskandalizatu egingo ginatke eraso sexistekin: txarangako neskei

eskua sartzea edo komentarioak egitea, adibidez. Horrelako gauzak naturalizatuta zeuden, baina zorionez eboluzionatu egin dugu eta ez ditut horrelako egoerak gogoratzen azken boladan”.

Ospakizunen urtea

Bizipen horiek guztiak oso presente izan zituzten joan den zapatuan, Ustekaberen 25. urteurrena ospatzeko ekintza bereziak prestatu zituztelako. Txaranga ibilitako hainbat lagun elkartu ziren gaur egun dabilen kideekin eta egun zoragarria pasa zuten, kalejira ere eginez, noski.

Horrekin eman zieten hasiera urteurren bereziaren ospakizunei eta, oraindik askorik aurreratu ezin duten arren, gauza bereziak egingo dituzte urte honetan zehar. Momentuz, irudi berria aurkeztu dute, Irune Jaio diseinatzailearekin batera landutakoa, eta hilabeteak eibarreraz jartzen dituen egutegia argitaratu dute. Adi egon eta bertan apuntatu antolatzen dituzten ekintzak.



'No estas loca' dokumentalaren azala eta Maria Bestar zuzendaria

'No estás loca', indarkeria bikarioaren ahotsak entzuteko dokumentala

IRATI ALVAREZ

Azaroaren 25aren inguruan egingo diren ekimenen testuinguruan, Amakin Eibar elkarteak "No estás sola. La verdad sobre la violencia vicaria" dokumentala ekarriko du Coliseo antzokira: azaroaren 22an (20:00etan) eta azaroaren 24an (19:30ean). Maria Bestar zuzendariaren lana da, eta indarkeria bikarioa — genero indarkeria mota bat da, emakumei kaltea edo mina eragiteko asmoz, haien senide edo hurbileko adingabeen aurka erabiltzen dena — argitara ateratzea eta gizartearen begiradaren erdigunean jartzea du helburu.

Bestarren arabera, dokumentalaren abiapuntua bere esperientzia pertsonala izan zen:

«Ni ere indarkeria bikarioaren biktima izan nintzen. Dokumentala sortu aurretik izen bereko film laburra proiektatu nuen bakoitzean, ama eta adingabe askok aitortzen zidaten eurak ere antzeko egoerak bizi izan zituztela. Orduan konturatu nintzen film labur batek ez zuela nahikoa ematen, eta beharrezkoa zela testigantza gehiago bildu eta dokumental formatuan sakontzea», azaldu du.

Sortze prozesuan zehar, zuzendariak gogorra izan dela onartu du, batez ere beste emakume batzuen bizipenekin berea gurutzatzeak sortu duen zama emozionalagatik: «Besteen istorioetan zeure burua ikustea suntsitzaila da. Eredu berbera errepikatzen da ia beti, gripe

Gizarteak gutxi ezagutzen duen baina milaka emakume eta haurri eragiten dien errealitatea bistaratzen du dokumentalak: indarkeria bikarioaren mekanismo isilak, manipulazioa, isolamendua eta instituzioetan ere errepikatzen den bigarren indarkeria, guztiak ere Bestar zuzendariaren testigantza eta beste biktimen ahotsen bidez azaleratuta.

baten moduan: sintomak oso argiak dira, berdintsuak, baina inork ez ditu garaiz diagnostikatzen», adierazi du.

Biktimen testigantzak

Dokumentalak informazioa eta prebentzioa jartzen ditu erdigunean. Bestarren hitzetan, gakoa da ikusleak ulertzea indarkeria bikarioa ez dela erailketara mugatzen: «Jendeak egia ezagutuko balu —ez bakarrik gertaera lazgarrienak, baizik eta aurretik gertatzen den guztia—, pertsona asko bizirik egongo lirateke», dio.

Lanak —biktimen testigantzen eta adituen ekarpenen bitartez— indarkeria bikarioaren alde ezezaguna azaleratzen du: manipulazio psikologikoa, isolamendua, umeak mendeku edo kontrol tresna gisa erabiltzea, eta emakume askok pairatzen duten bigarren mailako indarkeria instituzionala. Eibarren egingo diren bi emanaldiek gogoeta soziala eta kontzientziazioa sustatzeko aukera eskainiko dute.

“Plazan ibiltzea luxua da: belaunaldi desberdinekin egoteko aukera ematen dit”

SUSTRAI COLINA • Bertsolaria



Aurten XXXI. edizioa izango du San Andres Bertso Jaialdiak. ...eta kitto! Euskara Elkarteak Eibarko Udalaren babesarekin antolatzen du urtero. Urte hauetan maila goreneko bertsolariek zapaldu dute Eibarko taula, eta aurten ez da gutxiago izango. Sarrerek egunean bertan erosi ahal izango dira Coliseoko leihatilan, 18:30etik aurrera (8 euro). Jaialdia hasi aurretik, San Andres Bertso Paper lehiaketaren sariak banatuko dira.

Testua **IRATI ALVAREZ**

San Andres Bertso Jaialdiak XXXI. edizioa ospatuko du aurten. Azaroaren 28an, Mikel Arrillaga gai-jartzailerean gidaritzapean, Coliseoko antzokiko oholztan elkartuko dira maila gorenean aritzen diren bost bertsolari: Sustrai Colina, Alaia Martin, Joanes Illarregi, Eneritz Artetxe eta Unai Iturriaga. Sustrai Colinarekin hitz egiteko aukera izan du ...eta kitto!-k.

Izan al zara aurretik San Andres Bertso Jaialdian edota Eibarren?

Bai, hainbat aldiz kantatu izan dut Portalean eta Coliseon. Arraten ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako bertso afarian ere izan naiz, eta baita herriko beste saio batzuetan ere.

Bertsolari gisa, pertsonalki, zein momentutan kokatzen duzu zure burua?

Plazaz plaza nabil, gustura. Bertsolari bakoitzak bere bide propioa du, eta ni horretan ari naiz pausoak emanez. Jendearekin egoteko eta errealitate desberdinak ezagutzeko gogoz nabil. Egia esan, gaur egun plazan ibiltzea luxua da niretzat: belaunaldi eta ideologia desberdineko jendearekin egoteko aukera ematen dit, eta pertsonalki oso aberasgarria da.

Belaunaldi berriak aintzat hartuta, gaur egun bertsolaritzara gerturatzen ari direla uste duzu?

Bai, zalantzarik gabe. Bertsolari gazteak dauden heinean, bertsozale gazteak ere badaude. Eskolek transmisio handia egiten dute horretarako: ez bakarrik bertsolariak sortzen, baita bertsozaleak ere. Gainera, herriz herri elkarteek antolatzen dituzten jaialdiek —San Andresekoa kasu— asko laguntzen dute belaunaldi berriek bertsoarekin harremana izan dezaten.

San Andres bertso saioak XXXI. edizioa beteko du aurten. Zein egoeratan ikusten dituzu honelako saioak?

Plaza osasuntsu dago. Pandemiaren ostean, plaza kopuruak handitu egin dira eta formatuak inoiz baino ugariagoak dira. Bertsozaleak bere gustuko saioa aukeratzeko aukera handiagoa du, eta hori oso pozgarria da. Nik esango nuke inoiz baino bertsolari gehiago gaudela plazan, eta hori ezinbesteko amua da zale berriak gerturatzeko.

Coliseon puntako bost bertsolari elkartuko zarete. Zer erronka ikusten duzu saio honetan?

Saio bakoitza erronka bat da, kantaria edozein dela ere. Taula gainean jartzen zaren unetik beti duzu ardura eta motibazio bat saio ona egiteko eta jendeari



Sustrai Colina bertsotan izango da aurtengo San Andres Bertso Jaialdian.

zerbait eskaintzeko. Motibazio hori galduz gero, hobe litzateke etxean geratzea. Gainera, Eibarren izango garen bertsolarion artean badago harreman bat, eta horrek lagunduko digula uste dut.

Jende aurrean bertsotan aritzea ez da erraza. Nola prestatzen duzu zure burua?

Inprobisatzeko aurretik lan handia egin behar da. Norberak zer egin nahi duen eta zer ez argi izatea garrantzitsua da, eta gero, egin nahi duen horretara hurbiltzeko tresnak lantzea. Horrez gain, aktualitatearen eta munduan gertatzen denaren aurrean nola kokatzen

zaren argi izatea ere funtsezkoa da. Hor dago giltza.

Zein aholku emango zenioke bertsotan hasi berri den gazte bati?

Jolasa deskubritzeko esango nioke. Zerk motibatzen duen aurkitzea. Jakin-minetik eta grinatik hasten gara guztiok bidea egiten eta disfrutatzen. Pausoz pauso joatea da garrantzitsua, amets handiek itsutu gabe.

Azkenik, zer esango zenieke herritarrei?

Gure onena ematen saiatuko gara eta saio atsegin bat eskaintzen. Espero dugu bertaratzen direnek disfrutatzea eta elkarrekin ostiral iluntze eder bat pasatzea.



Iñigo Legorburu hernaniarrak irabazi du San Andres Bertso Paper lehiaketa

...eta kitto! Euskara Elkarteko bertso-taldeko epaimahaiak aste honetan eman ditu ezagutzera aurtengo San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleak. 16 urtetik gorakoen artean Hernaniko Iñigo Legorburu izan da irabazlea (300 euro eta txapela) eta bigarrena Aimar Goenaga eibartarra (250€ eta plaka). Gaztetxoaren artean Juan Antonio Mogel ikastolako bi ikaslek bereganatu dituzte sariak, Luke Litagok lehena eta Peru Goro-sabelek bigarrena. Sarituek hurrengo barixakuan, azaroak 28, Coliseon egingo den bertso-jaialdian jasoko dituzte sariak.

SLIDE • Musika taldea

“Bakardadea landu nahi izan dugu ‘Agur’ EP-an”

Slide taldeak 'Agur' EP berria aurkeztuko du azaroaren 28an, Eibarko Zai-Zoi tabernan. Sei kantek osatutako lanak bakardadearen faseak harilkatzen ditu, eta taldeak bere bide propioa finkatzeko egindako jauzia islatzen du.

Testua eta argazkiak **IRATI ALVAREZ**
Bideoa **YANIRE SAGREDO**



2019an cover talde gisa sortu zen Slide, baina urte gutxiren buruan bere bide propioa eraiki du Euskal Herriko rock eszenan. Gaur egun, Aitzol Hidalgo (gitarra), Josu Cascan (bateria), Aitor Castillo (baxua) eta Egoitz San Martin (gitarra eta ahotsa) dira taldea osatzen duten musikariak, eta bigarren EPa plazaratu berri dute: “Agur”. Sei kantuk osatutako lan kontzeptual honek bakardadearen eta dolu-prozesuaren haria josten du, eta taldearen heldutasun berria erakusten du. Azaroaren 28an aurkeztuko dute Eibarren, Zai-zoi Tabernan.

Rock-a lantzen duzue, beraz

AITZOL: Bai, rock-a landu dugu, baina egia da pop-rock, rock alternatiboa... hainbat estilo barnebiltzen dituela gure musikak.

EGOITZ: Hori da, guk rock alternatiboa esaten dugu, estilo aniztasun hori barnebiltzen duelako.

Baduzue erreferenterik?

JOSU: Taldearen sorreran Euskal Herriko talde eza-gunak genituen buruan, Berri Txarrak adibidez.

AITZOL: Catfish and the Bottlemen, Touché Amoré... Estilo askotariko taldeak entzuten ditugu eta hori gure musikan nabaritzen da.

EGOITZ: “Agur” EP-ra begira, gertuko taldeak ere izan ditugu erreferente, Ezpalak adibidez.

Garapena egon da lehendabiziko EPtik bigarrenera?

AITZOL: “Agur” EPan aldaketa nabaritu dut musika lantzerako orduan. Lehenengo EPa metaleroagoa zen, “kañeroagoa”. Bigarren hau, aldiz, lasaiagoa da.

EGOITZ: Bai, lehenengo EPa esperimentalagoa zen. Taldearen aldaketekin batera, bide propioa hartu genuen.

AITZOL: Taldea profesionalizatu nahi genuen eta egin dezakegun lan onena egin.

“Agur” izena ez al da paradoxikoa?

AITZOL: Egia esan, kasualitatea izan da, ez dugu nahita egin. Abestiak grabatu eta bukatu genituenean, izenaren inguruan hitz egin genuen. Oso zaila da dena laburbiltzen duen izen bat aukeratzea.

JOSU: Hainbat izen pentsatu genituen: “Anekdotak”, “Eskaileran”, “Ganbaran”...

EGOITZ: Diskoaren mezuan jarri genuen fokua. Azkenean, zerbait albo batera uzteaz hitz egiten du.

Zer da “agurtu” nahi izan duzuen?

EGOITZ: Sentimentu bati edo esperientzia txar bati agur esan nahi dio diskoak. Bakardadea lantzen du, doluaren faseak bezalaxe: lehenengo abestiak amorrua jasateaz hitz egiten du, bigarrenak egoera onartu ezin izateaz, ondoren ukapena dator, eta azkenik esperientzia hori onartu eta “agur” esaten dio.

Abestiak harilkatuta daude, beraz.



Sei kantako diskoa kaleratu du SLIDE taldeak. MAITANE CAMPOS

AITZOL: Bai, hori da hasieratik nahi genuena. Istorio bat sortu nahi genuen, bakardadearen bilakaeran oinarrituta.

EGOITZ: Singleak dira nagusi gaur egun, kontsumo azkarrean. Guk, aldiz, kontzeptu-album bat sortu nahi genuen, osotasunean zentzua zuena.

Zenbat abestik osatzen dute "Agur"?

EGOITZ: Sei abestiz osatua dago: Fuck U!, Zalan-tzak (feat. Juango Berasain), Izkutuan, Anekdotak (feat. Habi), Agur eta Bitxilore (Re-recorded). Azken kanta ez du aurrekoekin zerikusirik, "bonus track" bat da. Aurretik genuen abesti berezi bat zen, behin grabaketa profesional bat egiteko aukera izanda berriz grabatzea erabaki genuen

AITZOL: Aldi berean, binilo formatuan egin nahi genuenez "toc-a" ematen zidan azalaren alde batean 3 kanta eta bestean 2 agertzea. Alde bakoitzean 3 kanta egonda, bisualki hobeto geratzen da.

Aurkezpena Zai-Zoi Tabernan izango da, azaroaren 28an. Gogotsu zaudete?

AITZOL: Bai, oso gogotsu gaude jendeari gure lana aurkezteko.

EGOITZ: Gainera, taberna hau erreferentia da guretzat. Kontzertu mordoa ikusi ditugu bertan eta gure aurkezpena bertan egitea jasotakoa itzultzeko modu bat da.



"Istorio bat sortu nahi genuen, bakardadearen bilakaeran oinarrituta"

AITZOL HILDALGO (GITARRA)

"Sentimentu bati edo esperientzia txar bati agur esan nahi dio diskoak"

**EGOITZ SAN MARTIN
(GITARRA ETA AHOTSA)**



GORKA ERRASTI

Trapuak dira zaharrak; pertsonak, nagusiak

Gipuzkoako zahartze-tasak hartu duen goranzko abiaduraz hitz egiten duen albiste batekin topo egin dut egunotan. Beti entzun izan dut trapuak direla zaharrak; pertsonak, aldiz, nagusitu edo adindu egiten gara. Albiste eta datu hauek guztiek, ordea, zahartzeaz hitz egin ohi dute.

Ez da fenomeno berria, baina abiadura handia hartzen ari da. Eibarren ere gero eta jende nagusi gehiago dago. Eibarko biztanleriaren %25ak 65 urte baino gehiago ditu. Bizi-itxaropena handitzen doan heinean, nagusi gehiago izango gara herrian. Haurren jaiotzek ez dute desoreka handi honi buelta ematerik lortzen, eta piramidea guztiz aldrebes dago.

75 urte baino gehiagoko biztanleriaren pisua EAEn %12koa da; Gipuzkoan, berriz, altuagoa da, eta Eibarren %13,60koa. Eibar da Gipuzkoan 20.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietatik “zahartze” tasa handiena duena. Aurten 9 pertsonak bete dituzte 100 urte herrian. Benetan, zorionak! Baina honek guztiak erronka handiak jartzen dizkigu aurretik.

Ohiko zaintza-sistemak goraino daude. Aspaldi ez ditut ezagutu Eibarren dauden pertsona nagusien egoitzek une honetan dituzten itxaron-zerrendak. 2024an, 955 pertsonak mendekotasunari lotutako prestazioen bat jasotzen zuten herrian. Horietatik 424k familia ingurunean zainduak izateko prestazioa, eta gainontzeko 531k, zaintzarako profesional bat kontratatze prestazioa. Etxez etxeko laguntza zerbitzuan ere gero eta inbertsio handiagoa egiten du Udalak. Etxean bizi eta zainduak izatek egoitza batean bizitzearaino, erdibideko aukerak ere badaude, eta hor egin beharko dira etorkizuneko inbertsioak, etxebizitza komunitarioetan edo co-housing bezalako sistemetan.

Erronkak, ordea, ez dira zaintzara bakarrik mugatzen. Nagusi askok pairatzen duten bakardade ez hautatuari ere aurre egin beharko zaio. Dituzten parte-hartzerako espazioak zaindu eta handitu beharko dira. Irisgarritasunari eta hirigintzari lotutako ekintzek ere biztanle nagusienak kontuan izan beharko dituzte. Eta nola ez, herriari egin dioten eta egiten dioten ekarpena aintzat hartzeko ordua ere bada.

“Eibar da Gipuzkoan 20.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietatik ‘zahartze’ tasa handiena duena”



Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Eibarren eta inguruetan etxebizitza bilatzea gero eta erronka handiagoa da familientzat, gazteentzat eta bizi-proiektu berria hasi nahi dutenentzat. Bizi-kostuaren igoerak, finantzaketa baldintzek eta eguneroko gastuek etxebizitza eskuratzeko aukerak murriztu dituzte. Testuinguru horretan, informazio argia eta erabakiak lasaitasunez hartzeko tresnak izatea inoiz baino garrantzitsuagoa bihurtu da.

Gehigarri honen helburua da etxebizitzaren inguruko egungo egoera modu ulerterrazean azaltzea: zein joera dauden, zer nolako etxeak aurki daitezkeen, zein erronka nagusi sortzen diren eta zer aukera irekitzen diren herrian zein inguruko udalerrietan. Helburua lagungarria izatea da, irakurleak bere egoerara egokitutako ikuspegi praktikoa izan dezan.

		www.aukera-inmobiliaria.com 943 12 13 95 Bidebarrieta 29	
Produktu hauek Aukera Inmobiliariakoak dira ESKLUSIBAN			
	San Kristobal Ref.2926 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Pisu altua eta eguzkitsua. Guztiz jantzia. 139.000€		Pagei Ref.2900 3 logela, sala, sukaldea ta komuna. Igogailua eta trastelekuarekin. Bizitzera joateko. 199.000€
	Iparragirre Ref.2907 BPE (VPO)ko 3 etxe. Estreintzeko. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. 122.514€ -tik aurrera.		Tiburzio Anitua Ref.2842 2 logela, sala, sukaldea eta komuna. 33,60 m ² -ko terrazarekin. Guztiz jantzia. 140.000€
	Bustinduitarren Ref.2915 2 logela, sala, sukaldea eta komuna. Balkoia. Pisu altua. Erreformatzeko. 135.000€		Asola Igartza Ref.2876 3 logela, sala, sukaldea eta komuna. Balkoia eta igogailua. Erreformatzeko. 149.000€
	T. Etxebarria Ref.2913 5 logela, sala, sukaldea eta 2 komun. Igogailua. Erreformatzeko. 210.000€		Arane Ref.2829 2 logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Balkoia, igogailua, trastelekua. 239.000€

Etxebizitza erosi aurretik: funtsezko aholkuak

Etxebizitza bat bilatzea ez da prezioak konparatzea soilik; informazio egokia, denbora eta orientazioa eskatzen dituen prozesua da. Etxebizitza erostea erabaki handia da, eta ondo prestatuta egiteak arazoak eta ustekabeak saihesten laguntzen du. Hona hemen kontuan hartu beharreko punturik garrantzitsuenak:

- **Aurrekontua ondo definitu.** Kalkulatu ez bakarrik etxebizitzaren prezioa, baita notariotza, zergak, tasazioak eta hasierako eraberritzeak ere.
- **Finantzaketa aukerak aztertu.** Banku ezberdinek eskaintzen dituzten hipoteka baldintzak konparatu eta interesak zein epeak zehatz-mehatz ulertu.
- **Etxebizitzaren egoera teknikoa begiratu.** Egiaztatu isolamendua, elektrizitatea, ur-hodiak eta eraikinaren egoera orokorra. Aurrekontuan eragina izan dezake.
- **Kokapena eta zerbitzuak baloratu.** Ikastetxeak, garraioa, osasun zerbitzuak eta erosotasunak gertu izatea egunerokoan asko nabaritzen da.
- **Auzoa ezagutu.** Egunean, gauean eta asteburuan paseatu: zarata, trafikoa eta giroa nolakoak diren ikusteko.
- **Gastu komunitarioak kontsultatu.** Eraikinaren mantentzea, igogailua edo etorkizuneko obrak gastu handiak izan daitezke.
- **Dokumentazioa eskatu.** Jabetza-ziurtagiria, kargak, IBI zergaren ordainketak eta eraikinaren ITE txostena eguneratuta daudela ziurtatu.



Dani Castro

Urratsik garrantzitsuenetako bat errazten dizugu: zure etxebizitza aurkitzea edota saltzea.

Gardentasuna, gertutasuna eta kudeaketa integrala, prozesu guztian zehar lasai bizi zaitezten.

Zure etxebizitza, gure lehenetasuna.



Fermin Calbeton 4, solairuartera Tel. 635 75 25 14

daka@dakainmobiliaria.es www.dakainmobiliaria.es insta: @dakagestioninmobiliaria

Unzaga promozioa

Diseinu modernoa, kalitate altuak eta maitemintzen duten leiho handiak. Eibar bizitzeko modu berri bat

Unzagako Promozioak etxebizitza berri, argitsu eta eraginkorrak dakartza Eibar erdi-erdira. Leiho handiak, hornitutako sukaldeak, zoru erradiatzaileak eta kalitatezko akaberak etxeko gela bakoitzean. Ingurunearen izaera errespetatzen duen eraikin modernoa da, eta eguneroko bizitza hiriaz modu dotore eta atseginagoan gozatzeko aukera bihurtzen du.



Bidebarrieta, 24 - Eibar (Gipuzkoa) - 943 201 213 - 633 483 956 - ibaiondo@inmoibaiondo.com
www.inmobiliariaibaiondo.com

**INDONESIA,
PARAGUAY ETA
DOMINIKAR
ERREPUBLIKAN**

**INBERTITZEKO
BIDEA
IREKITZEN
DIZU IBAIONDOK**



Bidebarrieta, 24 - Eibar (Gipuzkoa)
943 201 213 - 633 483 958
ibaiondo@inmoibaiondo.com
www.inmobiliariaibaiondo.com

INBERTSIO-LERROA ZABALTZEN ARI GARA.
Emandako aukeren artean, %22rainoko itzulkinak inbertsioetan eta %30erainoko plusbalioak dituzten hiru helmuga emergente hautatu ditugu, garatzaileekin, arkitektoekin eta sustatzaileekin zuzenean lan eginez.

Nola lagundu dezakete higiezin agentziek?

Etxebizitza bilaketa konplexua izan daiteke, baina higiezin agentziek prozesua erraztu dezakete hainbat modutan:

- **Merkatuaren ezagutza zehatza.** Auzoz auzoko prezioak, eskaintza eta aukera errealistak ezagutzen dituzte, eta bezeroaren beharretara egokitutako aukerak proposatzen dituzte.
- **Denboraren kudeaketa.** Etxe-bilaketako lan neketsuenak egiten dituzte: iragarkiak, bisita antolaketa, konparazioak eta fitxen prestaketa.
- **Dokumentazioaren laguntza.** Jabetza-egoera, kargak, zergen ordainketak eta eraikinaren ITE txostena egiaztatzen laguntzen dute, ustekabeak saihesteko.



 www.kotainmo.com info@kotainmo.com 943 20 15 80 Bidebarrieta, 1 			
 Jardiñeta Ref.000 Bista irekiak. Egoera ona. Garaje eta trastelekuarekin. 248.000€	 San Kristobal Ref.154 3 logela. Bizitzen hasteko. 139.000€	 T. Etxebarria Ref.157 106 m². Bista irekiak. 3 gela, 2 komun. 410.000€	 T. Etxebarria Ref.167 Azken solairua terrazarekin. Eraberritzeko. 249.000€
 Urki Ref.240 Eraberritutako buhardilla. Iggailurik gabe. Gazteentzako aproposa. 90.000 €	 Urkizu Ref.140 Egoera ona. 2 logela. Trastelekuarekin. 198.000 €	 Urkizuko dorreak Ref.224 3 logela, 2 komun, balkoia. 185.000 €	 Erdigunean Ref.210 Bista irekiak. 3 logela, Iggailua. 195.000 €



- **Aholkularitza ekonomikoa.** Hipoteka mota ezberdinak ulertzen laguntzen dute, bankuen eskaintzak alderatzen eta kostu errealak kalkulatzeko.
- **Bisiten laguntza profesionala.** Etxebizitza baten egoera teknikoa aztertzen laguntzen dute: instalazioak, isolamendua edo etorkizuneko obren beharra.
- **Negoiazioa.** Prezioen inguruko orientazioa ematen dute eta akordio egokiak lortzen laguntzen dute, eroslearen interesak babestuz.
- **Segurtasuna eta lasaitasuna.** Prozesu guztian zehar bidelagun dira, pausoz pauso azalpenak emanez eta zalantzak argituz.
- **Tramiteak eta azken urratsak.** Notariotzara arteko bidea prestatzen laguntzen dute, azken agiriak eta ordainketak behar bezala antolatuta egon daitezzen. Higiezin agentzien lana ez da etxebizitza bat erakustea soilik: erosketaren prozesua ordenatu, segurtatu eta erraztu egiten dute, herritarrentzat bidea askoz ere ulergarriagoa bihurtuz.

Inmobiliaria IMIBA

Ezagutu gure METODOA

Home Staging
(eszenaratze fisikoa)

Argazkilaritza
eta bideo
profesionala

360°
bisita
birtuala

Eskaneatu eta baloratu
zure etxebizitza online

IMIBAn zure etxea prestatzen dugu lehen egunetik nabarmentzeko

IMIBA

INMOBILIARIA

Fermin Calbeton Kalea 4 - 1. solairua, Elbar
HARREMAN ZUZENA - ETENGABEKO KOMUNIKAZIOA - GARDENTASUN OSOA

www.imiba.es • 650 52 28 26

Erronka izatetik aukera izatera

Etxebizitza lortzea gaur egun erronka handia da Eibarren eta inguruetan. Prezioen igoerak, eskaintza mugatuak eta bizi-kostu orokorraren garestitzeak erabakia zailagoa bihurtu dute familientzat, bikote gazteentzat eta bakarrik bizi direnentzat. Hala ere, informazio egokia edukita eta pausoak ondo planifikatuta, etxebizitza bat aurkitzea posible da oraindik ere.

Aholku praktikoak jarraitzeak —aurrekontua zehaztea, dokumentazioa zaintzea, kokapena ondo baloratzea edo etxebizitzaren egoera teknikoan arreta jartzea— lagungarria da ustekabeak saihesteko. Etxea erostea ez da presaka egiteko erabakia, eta aukerak alderatzea funtsezkoa da, egokiena aurkitu arte.

Bestalde, higiezinaren agentzien laguntza gero eta garrantzitsuagoa bihurtu da. Merkatuaren ezagutza, tramitee-

tan duten esperientzia eta negoziazioetan eskaintzen duten babesa baliagarriak dira prozesu osoan. Askotan, profesionalen orientazioak ziurgabetasuna gutxitu eta erabakia lasaitasun handiagoz hartzen laguntzen du.

Azken finean, etxebizitza bat bilatzea prozesu bat da, eta informazio onarekin, aholkularitza egokiarekin eta pazientziarekin, etorkizunerako etxe egokia aurkitzea erronka izatetik aukera izatera pasatzen da. Etxea ez baita lau pareta soilik: proiektu berri bati hasiera emateko lekua da.




**ARGABA
GESTION, S.L.**

Etxebizitza berriak eta
loft antzeko apartamentuak
LASTER ESKURAGARRI

Urtzaila, 1 (Aurrea eraikina)
943 206 383 / 672 338 993



dp donpiso
FIDATU ZAITEZ PROFESIONALETAZ BAKARRIK

Isasi, 16 EIBAR
M. Valdespina, 12 ERMUA

Zure etxea saltzeko
modurik azkar, erraz
eta eraginkorrena

eibar@donpiso.es
www.donpiso.com

943 82 05 10 / 618 769 839 / 943 53 84 92



F. Calbeton, 22-24

LARRAGEST
AGENCIA INMOBILIARIA

697 258 966 943 200 012

*Eibarko zure
konfidantzazko
inmobiliaria*



SORALUZE
INMOBILIARIA

611480198

- Etxebizitzak eta lokalak bilatzen ditugu Eibar, Ermua eta Gipuzkoa osoan
- Zure etxea saiduko dugu 1-3 hilabetetan
- Bezero zerranda luzea dugu
- Ez-ordaintze aseguruak gaur egungo kontratuentzat
- Pisuak saltzen ditugu inkeilinoarekin

OSCAR SOUSA
(INMUEBLE-AGENTEA)

Errebal, 15
–EIBAR–

inmosoraluze@outlook.es
www.inmosoraluze.com



Deporreko mendizaleek Alegia eta Bidania-Goiatz lotuko dituzte bihar

E.B. Herri Txikiak arloko beste irteera bat egingo dute bihar Eibar-ko Klub Deportiboko mendizaleek. Oraingoan Alegian hasi eta Bidania-Goiatzen amaituko dute ibilbidea, 14,6 km eginez (goraka metatutako 751 m-ko desnibelarekin eta behe-rako 357 m-ko desnibelarekin). Bidean Iruntxur (743 m) mendia igo beharko dute.

Irteera Ego Gain kaletik egingo dute 08:00etan (Bidebarrieta kaleko 66. zenbakian 08:05ean). Itzulera 17:00etan egitea aurreikusten dute.

Parte hartzeko, Deporreko bazkideek 15 euro ordaindu beharko dute eta bazkideak ez direnek 20 euro. Izena emateko, e-maila bidali daiteke mendia@deporeibar.com helbidera.

Malape, Xania eta Maremen artean dago liga

E.B. Denboraldiko bederatzi neurketa jokatu ondoren, argi dago txapelketa hiru talderen artean jokatuko dela: Malape Taberna, Xania Taberna eta Bar Marem. Lehenak 24 puntu ditu, bigarrenak 21 eta hirugarrenak 20.

Azken jardunaldian, Malapek lehia gogorra izan zuen Bergara Pneumatikoaken aurka, baina garaipena lortu zuen, 1-2. Xaniak ere neurketa zaila izan zuen, baina aurrera ateratzea lortu zuen, Kalaka Buenos Airesen aurka, 0-1 irabaziz. Maremek, bere aldetik, oraindik punturik lortu ez duen Baserri izan zuen arerio eta 4-1 irabazi zion.

SAILKAPENA

1. Malape Taberna, 24 puntu
2. Xania Taberna, 21 puntu
3. Bar Marem, 20 puntu
4. Bergara Pneumatikoak, 13 puntu
5. Kalaka Buenos Aires, 12 puntu
6. Garajes Garcia, 12 puntu
7. Adahi Etxegi, 10 puntu
8. Limpiezas Rueda, 6 puntu
9. Baserri, 0 puntu

Txistorra Eguna ospatuko da bihar

E.B. Eibarko Txirrindulari Elkar-teak Txistorra Egunaren XXI. edizioa ospatuko du bihar. Aurtengoan CD Urki futbol taldea eta Jesus Angel Sainz klubeko zuzendaritzako kide eta medikua izandakoa omen-duko dituzte. Ekitaldia 11:30ean hasiko da, Untzagan jarriko dute karpan, eta Debako dultzaineroen eskutik txotx-a egingo da.

Dultzaineroak goiz eta eguerdian zehar Untzaga eta inguruetan egongo dira girotzen eta Untzagako kar-

pan txistorra eta edarien salmenta egingo da 12:00etatik 15:00etara eta 18:30etik 21:00etara. Salmenta amaitzen denean, egunean zehar saldu dituzten rifen zozketa hasiko da.

Lehen sari berezi bat eta bost 'meta bolante' banatuko dituzte, eta baita hainbat sari txiki ere. Besteak beste, futboleko kamisetak, maillotak, kirol ikuskizunetarako sarrerak, jakiak eta otarrak eskuratu ahal izango dira.





Paula Calvo bikain aritu da Espainiako Txapelketan

E.B. Igeriketako Espainiako Txapelketa jokatu da Bartzelonan azaroaren 13tik 16ra eta bertan izan dira Eibar Igerixan taldeko Paula eta Iker Calvo. Lehen 50m, 100m eta 200m bizkarrean, 400 m estiloan eta 100 m librean aritu zen; eta bigarrean 50 m eta 100 m bizkarrean. Lehiakide indartsuen aurrean, Paulak 400 m estiloetako proban lortu zuen emaitzarik onena, B finalean lehen postua eskuratuz.



Bihar jokatu da 35. Euskal Herriko Hiru Txirlo Txapelketaren finala

E.B. Euskal Herriko 35. Hiru Txirlo Txapelketa amaierara iritsiko da bihar, Etxaguen (Aramaio) jokatu den finalarekin. Tiraldia 12:00etan hasiko da eta bertan erabakiko da norka eramango duen txapela.

Azken tiraldia Elgetan egin zen eta MX3T taldeko Jabi Urkidi izan zen irabazle 9 txirlorekin eta haren atzetik sailkatu ziren Jose A. Nuñez (San Andres), Enara Montiel (Asola Berri) eta Xabier Loiola (San Migel) 7 txirlorekin.



Ipuruako gimnastak podiumera igo ziren Oviedoko Torneoan

E.B. Ipurua klubeko gimnastek Oviedoko Torneoan hartu zuten parte asteburuan eta oso emaitza onak lortu zituzten. Zapatuko lehiaketan, infantilak 3. geratu ziren, kadeteek 1. postuan amaitu zuten eta jubenilak 4. izan ziren. Domekan, ostera, denak igo ziren podiumera: infantilak 3. izan ziren, kadeteak 2. eta jubenilek 3. amaitu zuten.

Hiru taldeek erronka handiagoa izango dute asteburuan, Castellón izango baitira Espainiako Txapelketa jokatzeko. Infantilak eta kadeteak gaur lehiatuko dira, eta jubenilak bihar.



SD Eibar Fundazioak asteburuan ekingo dio Genuine Ligari

E.B. LaLiga Genuine txapelketaren 2025/26 denboraldiari hasiera emango zaio asteburuan, Salouko Mediterranean Sports Hub-en. SD Eibar-ek hiru partiduko jokatu ko ditu: Real Betis-en aurka, azaroaren 22an, 12:00etan; Levante UD-ren kontra, egun berean, 17:30ean; eta RCD Mallorcaren aurka, 23an, 11:00etan.



Helduek zein gazteek gozatu zuten zapatuan Asier Cuevas Herri Lasterketan

EKHI BELAR

Ehundaka korrikalari elkartu ziren zapatu arratsaldean, Toribio Etxebarria kalean, Asier Cuevas Herri Lasterketaren XII. edizioan parte hartzeko. Hasteko, eta aurtengoan lehen aldiz, Asier Cuevas Lasterketa Txikia egin zen eta Eskola Kirolean parte hartzen duten 150 ume inguruk hartu zuten parte bertan. Eskola Kirolean hasi den aro berriaren berrikuntzetako bat da hau. Izan ere, Eskola Kirola programa "herriratu" nahi dute eta herriko kirol probetan parte hartzea sustatu.

Korrika egin baino lehen, umeei dortsalak banatu zizkieten, elkarrekin berotu zuten Deporreko atleten gidaritzapean eta gero lasterketak egin zituzten. Bi hain zuzen ere, LH-ko 3. eta 4. mailakoak atera ziren lehenik eta, gero LH-ko 5. eta 6. mailakoak, 800 metroko ibilbidea egiteko.

Zapatuko lasterketaren aurretik, astean egin dituzten saioetan zehar umeei proba prestatu ahal izan zuten eta monitoreekin lasterketa-estrategia ezberdinak landu zituzten. "Helburua guztientzat berdina zen: irribarretsu helmugaratzea", Oihane Sarasketa Irranzo Eibarko Eskola Kirolaren koordinatzailearen berbetan. "Bereziki eskerrak eman nahi dizkizuegu Klub Deportiboari eta bertako atletei, hasieratik eskainitako, laguntasun, prestutasun eta elkarlanagatik".

Xabier Labaka irabazle

Proba nagusian, korrikalariak hiru buelta eman behar izan zioten 2,5 km-ko ibilbideari, guztira 7,5 km eginez. Xabier Labaka Aldekoa bergararra izan zen azkarrena (23:38). Emakumeen artean, Oihane Sarasketa bera izan zen lehena (29:31).

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

Real Madrid - EIBAR (etzi, 16:00)

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Zaragoza (bihar, 18:30)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Celta de Vigo (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Sestao River - EIBAR B (bihar, 18:30)

Emakumezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Oiarzun (bihar, 17:30)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Derio (bihar, 16:00)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

URKI - Orioko (bihar, 12:35)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

Aretxabaleta B - EIBARTARRAK (bihar, 16:30)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

EIBAR - San Juan (bihar, 13:30)

Jubenilen Nazional Liga (gi)

EIBAR B - Santutxu (bihar, 11:00)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

URKI - Lagun Onak (gaur, 19:45)

FUTBOL-ZALETUA

- Xania - Adahi Etxegi (bihar, 09:00)
- Malape - Limpiezas Rueda (bihar, 10:30)
- Kalaka Bs. As. - Bergara Pn (etzi, 09:00)
- Bar Maren - Garajes Garcia (etzi, 10:30)
- Atsedena: Baserri

ESKUBALOA

Zilarrezko Maila (em)

E. ESKUBALOA - Urdaneta (bihar, 19:00)

1. Maila Nazionala (gi)

Usurbil - E. ESKUBALOA (bihar, 17:30)

Seniorren Euskadiko Liga (gi)

E. ESKUBALOA B - Corazonistas (bihar, 12:30)

Seniorren 1. Lurraldekoa (em)

EIBAR ESKUBALOA B - Usurbil (etzi, 12:00)

SASKIBALOA

Gipuzkoako 1. Maila (gi)

ART. JUANTXO - Aloña Mendi (bihar, 14:30)

Gipuzkoako 2. Maila (em)

EIBAR SASKI. - Aloña Mendi (bihar, 16:30)

WATERPOLOA

2. Maila Nazionala

Tenerife - URBAT (etzi, 12:00)

F. Calbeton, 12 943096884
OKINDEGIA / GOZOTEGIA
TXUTXE-DENDA
JANARIDENDA TXIKIA

XABALO 2024

1. urteurrena

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

“Pertsonaiak hainbeste haragitu nituen, haien falta somatu nuela hainbat astez”

ITXASO MARTIN • Idazlea



“Punto bobo” (Erein, 2024) bere bigarren lanarekin izan da Eibarren Itxaso Martin idazlea (Donostia, 1981), “Idazlearekin Harixa Emoten” euskarazko irakurle-taldean. Lau emakumeren arteko dinamikek eramango dute irakurlea eleberrian aurrera. Osasun mentala, emakumeen sufrimendua eta familiarteko tabuak ditu ardatz eta 11 kapitulutan orainaldiko eta iraganeko gertakizunak ehundu ditu Martinek.

Testua **MAIDER ARANBERRI**

Bigarren lana duzu honako hau. “Ni, Vera” lehenengotik denborara etorri da. Zelakoa izan da azken urteotako bidaia?

Tartean tesia egin nuen eta baita argitaratu ere, eta horrek egia esan sormenerako denbora gutxi uzten zidan. Aitortu behar dut, bigarren bat egiteko gai ote nintzen ala ez, hori sentitzeak bertigoa ere ematen zidala eta oso argi ikusi behar izan dudala zer kontatu nahi nuen eseri eta lanean hasteko.

“Punto bobo” honetan eztabaidarako gaiak barne-bildu dituzu sasoi ezberdinetako lau emakumeren bueltan: emakumeen sufrimendua, osasun mentala, familiarteko tabuak... Kezka-iturri dituzun gaiak, akaso?

Bai, horrela da, eta sortzen duzunean horiek guztiak ateratzen dira kasik nahi gabe. Eta azken finean gure gizartearen ustez epikoak ez diren gai horiek, istorio txiki horiek ateratzeko modu bat da. Aipatzen ditudan horiek baztertuak izatera edo huskeriara kondenatuak izan dira, eta horrek dituen ondorioak eta atzean dau-den arrazoiak interesatzen zaizkit.

Kazetariak gain, antropologoa ere bazara. Zertan lagundu dizu antropologiak liburua idazterako orduan?

Beti esaten dut antropologiak mundua ikusteko modua aldatu zidala. Eta jakina, sormenetik egiten dituzun gauza guztietan ere badu eragina. Puntoboboren kasuan, batez ere pertsonaiak eraikitzerakoan lagundu

dit. Pertsonaia guztiekin lortuko dugu enpatia momentu batzuetan, ulertzera iritsiko gara, baina beste batzuetan pertsonaia horietatik urruntzea eta amorrua sentitzea iritsiko gara. Pertsonaien konplexutasuna eraikitzen eta ulertzen lagundu didala esango nuke.

Historiaren abiapuntua nondik dator?

Historiaren abiapuntua kontatuko banu spoilerra egingo nuke eta pena litzateke. Esan dezakedana da, amaieran kontatzen den eta liburu guztian zehar presente dagoen gaia izan zela abiapuntua. Hortik eraiki nuen gero gainontzeko kontakizun guztia.

Hiru hitzetan laburbildu izan duzu liburua: Goxoa bezain gordin. Zergatik?

Nik uste dut bizitza bera dela horrelakoa, ezta? Dene-tik dago eta horrela bizi gara batetik bestera saltoka edota bietatik dugula dena nahastuta. Hainbat gauza jasateko goxotasuna beste aukerarik ez dugula iruditzen zait eta Puntobobon hori transmititu nahi izan dut.

Errealismo magikora ere jo duzu zenbaitetan. Gordinasuna arintzeko modua da?

Nik hala erabili dut. Kontatzen diren egoera batzuk hain dira gordinak non kasik magikoa den modu batean kontatzea beste aukerarik ez nuen ikusten. Irakurleari arnasa hartzeko, atsedean emateko, modu bat ere bada, eta jakina, poetikotasun puntu bat sartzeko aukera ematen du.

Nolakoa izan zen idazketa-prozesua?

“Liburuak zer pentsatua eman diela eta tripetara iritsi zaiela esan didate askok. Oso pozik eta eskertuta nago”

Zer kontatu nahi nuen banekien eta niri lan gehien ematen didana kontatu nahi dudana horrek zein forma hartuko duen jakitea da. Bide horri eskaini behar izaten diot denbora gehien. Eta honetan ere hala izan da, kapituluak nola egin, nondik eta nork kontatu, horrek hartu zidan denbora gehien. Hori lortuta, ondorengo idazketak erraz egiten duela aurrera esango nuke. Amaieran, negarrez bukatu nuen. Liburua bera ere modu gordinen amaitzen delako. Eta hainbeste haragitu nituen pertsonaien falta somatu nuela hainbat astez. **Idazkera aldetik erraz irakurtzeko moduko liburua da, nahita idatzi duzu horrela?**

Idazterakoan eta irakurtzerakoan, edukiak eta formak bat egiten duten istorioak gustatzen zaizkit. Eleberri honetan badago hitz egiten ez duen protagonista bat eta izugarritzko garrantzia duen pertsonaia bat da gainera. Ez zuen zentzurik esaldi luze eta konplexuz kontatzea. Horrek pertsonaietatik urrundu eta bere haragian sartzen oztupoak jarriko zituen. Lan handia dago ustez sinplea den idazkera horren atzean.

Irakurlearengan zer eragitea gustatuko litzaizuke? Emozioak sortzea eta zer pentsatua ematea. Eta zein aurreiritzirekin irakurri duen konturatzea. Batzuetan datu batzuk ematen dira istorio batean eta gainontzekoa irakurleok jartzen dugu, gure esperientziatik, aurreiritzietatik, etab. Horiek azaleratzearekin jokatu nahi izan dut.



Eta zer erantzun jaso du liburuak?

Orain arte oso ona izan dela esango nuke. Irakurle taldeetan giro ona egon da eta liburuak zer pentsatua eman diela eta tripetara iritsi zaiela esan didate askok. Oso pozik eta eskertuta nago.

Zerbait darabilzu esku artean?

Bai, Durangon Mati deitzen den pertsonaia baten lehen bi liburuak aurkeztuko ditut. 8-9 urte bitarteko haurrentzat egindakoak dira eta ilustrazioak Eider Eibarrek egin ditu. Ilusio handiarekin aurkeztuko ditugu lehen bi liburuak. Eta banabil beste eleberri motz batekin baina ni mantsoa naiz oso idazten eta denbora pixka bat beharko dut.

Zer ari zara irakurtzen?

Beti izaten ditut hiruzpalau liburu batera, idazten ari naizenerako erabilgarri zaizkidanak eta bestelako interesa pizten didatenak. Une honetan, Ursula K. Le Guinen “Contar es escuchar”, Garazi Albizuaren “Termita”, Luis Marioren “Calabobos” eta Nell Leyshonen “Del color de la leche” berrirakurtzen ari naiz.

OSASUN GIDA

DENTISTAK

0943972237 - 0943972237

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Ferrnán Calbetón 10- 3.º Izk. Eibar
943 70 72 37 | 688 42 28 08
amaia@esnaoladentalogia.com

arat.
ARAT KLINIKAK

ZURE
IRRIBARRE
ONENA

Torres Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 893
www.aratclinika.com

EIBAR - HORTZ KLINIKAK
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
616 7016

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

BISTA·EDER
Hortz Klinika - Clínica Dental

T: 943 70 00 82

Bista Eder n.º 19, bajo
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

GASTESI Hortz-Klinika

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 95 02
Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implantak / Laser Teknologia

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnak: 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGO

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarri plaza, 7-1.º. 943-702826

Odontologia
Biologikoa

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 578 48 57 52
albistegi@gmail.com

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4.º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

RS Hortz Klinika
Jose Usen Rodríguez
Morrero doktorea

LARRIALDIK
ERE LANTZEN DITUGU

CLINICA DENTAL Y
MEDICINA ESTETICA RS 603 46 90 18 / SAN JUAN, 7

FISIOTERAPEUTAK

ANE MENDIA
100 kolegiatu dira

- FISIOTERAPIA
- KINESIOTERAPIA
- FUNKZIOALAK
- KINESIOLOGIA
- KINESIOLOGIA

ABUAGUSTA, 20
Tfn: 943 53 66 42
ane_mendia@hotmail.com

masajeak eta
tratamenduak

FISIOTERAPIA IPURUA
EDURNE ETXEBERRIA

1088 kolegiatu dira.

I. Ojanguen, 2 678 746 617

Julian Etxebarria, 7 688717028

muina
FISIOTERAPIA ZENTRUA

Zoru Fisiokoa - Fisioterapia orokorra - Taldetxoak

Dona Mireia Sainza

GINEKOLOGIA

Dra. Laura Martínez Dr. Alejandro Recas

GINECOLOGÍA
EIBAR

- Ginekologia
- Obstetria
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaelbar.com

OSASUN GIDA

MEDIKUNTZA ESTETIKOA



abontza
clínica estética

MEDIKUNTZA ESTETIKOA
- Dermatología estética
- Auspegu gisletak
- Botox
KIRURGIA ESTETIKOA
- Botox eta dermatorina
- Liposukzioa
- Rruiga Injektatuta

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad
Egiguren, 6 - Behea 943 20 60 44
www.clinica-abontza.com

DR. ANE VESGA
CLÍNICA MEDICINA
ESTÉTICA

Mediku Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatuak

Arragueta 2bis B, Entreplanta A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



**RS Medikuntza
Estetikoa**

Maria Rosmina Soliz
Salvatierra DOKTORA

CLÍNICA DENTAL Y
MEDICINA ESTÉTICA RS 943 90 30 36 / SAN JUAN, 7

OKULISTAK



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmólogo Clínica

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.E. 234/13

Plaza Barrio 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



PODOLOGOAK



**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746**

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (125 Kolegiatu zbkia.)
Rosario Rodríguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

**Maidor
Lopez
Etxeberria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PSIKOLOGOAK



GONZALEZ DE MENDIBIL
PSIKOLOGIA | PSIKOTERAPIA

Haur, nerabe eta helduenganako
arreta psikologikoa

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
T.Etxeberria 5, 1-C | 623 45 31 95

**Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa**

Oscar Mondragon Lili
GONZALEZ ETA ARRATZALDEZ

Urkizu. 13 - behea
Tel. 943206823 / 686859023



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

**HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

TERAPIA NATURALAK



DEVI OM

**YOGA ETA
AYURVEDA ZENTROA**

- Yoga klaseak
- Ayurveda masajeak eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapiak naturalak

☎ 641 512 059
TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)



Umoredko bakarriketa arrazakeriari aurre egiteko

S.H. Azaroaren 27an, eguena, umorea, hausnarketa eta kulturartekotasuna uztartuko dituen ekitaldia hartuko du Coliseok, Haria eta Berba proiektuaren baitan: 18:00etan hasita, Asaari Bibang artista, idazle eta ekintzaile ekuatoginearrak Umored Beltza bakarriketa aurkeztuko du. Arrazakeriaren aurkako bakarriketa afrofeminista honetan, Bibangek umorea baliatzen du emakume, beltz eta migratzaile izatearen inguruko esperientziez hitz egiteko. Bakarriketarekin batera, Bright Martinsek zuzendutako 'Haria eta Berba' film laburra ere proiektatuko da. Laburmetraia honek Eibarko egunerokotasunean dagoen kulturartekotasunari erreparatzen dio, eta auzokide berriek bizitza komunitarioari egiten dioten ekarpena nabarmentzen du. Ekitaldia doakoa izango da, eta sarrera librea, aretoa bete arte. Eibarko Inklusio Mahaiak antolatatu du egitasmoa, Eibarko Udalaren, Debegesaren eta Zabaltzen Sarturen laguntzarekin.

Ahoztar Zelaietak liburu berria aurkeztuko du Kulturalean

S.H. Astelehenean, azaroaren 24an aurkeztuko du Ahoztar Zelaietak liburu berria, 18:30ean Arrate Kultur Elkartean: *El Pradalismo, el ocaso de los Jo-BuBi* (Txalaparta, 2025). Egilearen berbetan, liburua gida moduko bat da, "EAJ-PNVko iturgintza politikoaren barruan dauden talde ezberdinen artean botere-kuotak nola banatzen diren eta horrek euskal erakundeetan eta gizarteetan dituen ondorioak ulertzen laguntzeko".



“Emaiozu berbia euskeriari” goiburuean ospatuko dugu aurten Euskararen Eguna

S.H. Abenduaren 3an, eguaztena, ospatuko dugu euskaltzaleok Euskararen Eguna Eibarko Euskalgintza Taldearen eskutik. *Emaiozu berbia euskeriari* goiburuekin 19:00etan Untzagako harmailetan elkartzeko deia egin du herriko euskalgintzak: “Iazko koreografia egingo dugu harmailetan, ederra, egiteko erraza eta hunkigarria izan zen-eta”. Hori dela-eta, argia etxetik ekartzea eskatu dute, “linterna, kandela, frontala, kriseilua... argia ematen duen edozerrek balio du. Iluntasunari argia jarriko diogu aurten ere, oztopoak-oztopo eta zailtasunak-zailtasun tinko jarraituko dugu euskararen alde lanean”. Koreografia amaitu ondoren, aurtengo goiburua agertuko da jende artetik, “erdi-erdian dagoen *berbia* desagertu eta hitz berriak agertzen joango dira, herritarrek aukeratutako hitzak”. Herritarrek ekintzan parte hartzeko aukera izango dute beraz, “Untzagan karteltxoak izango dituzte eskura eta karteltxo horietan jendeak euskararekin lotutako hitzak idatziko ditu, aurtengo slogana osatzeko”.

Ludoteka irekia Odisea-ren eskutik

S.H. A San Andresetako ludoteka antolatu dute biharko (zapaturako) Odisea elkarte-koek. Mahai-jokoekin adin guztietarako ludoteka irekia prestatuko dute Errebal Plazan, 16:00etatik 20:30era: “Asmoa da herritarrek aukera izan dezatela mahai-jokoek mundua ezagutzeko, esperientziak partekatze eta arratsalde desberdin bat pasatzeko”. Jarduera doakoa da eta ez da beharrezkoa aldeaz aurretik izena ematea.





Santa Zezilia ospatzeko emanaldi bereziak egingo dira

S.H. Asteburu honetan emanaldi eta kalejira bereziak antolatu dituzte musikariek, Santa Zeziliaren omenez. Ohikoari jarraituz, **Eibarko Musika Bandak** serenata egingo du zapatutik domekara bitarteko gauerdian. Untzagatik abiatuko dira, herritarrek lagunduta, herria musikaz girotzeko. Azken urteotan bezala, aurretik ere beraiekin batera abesteko kantu-paperak banatu dituzte. Eta domekan, azaroak 23, 12:30ean, kontzertua emango du Bandako, Coliseon. Emanaldia *Amparito Roca* (J. Teixidor) pasodoblearekin hasiko da, “bere konposizioaren mendeurrenean”. Ondoren, *La Revoltosa* (R. Chapi) piezaren preludea joko dute eta, gero, Jesus Rioja Bandako tubistak *Czardas* (V. Monti) joko du, bakarrik. Horren atzetik etorriko dira *Danzon nº2* (A. Marquez), *Overture 1812* (P. I. Tchaikovsky) eta Duke Ellington jazzistaren kantuak biltzen dituen moldaketa bat.

Usartza Txistulari Taldeko kideak, **Eibarko Musika Eskolako ikasleekin** batera, zapatuan irtengo dira kalejiran, 19:30ean. Urkizu inguruan ibiliko dira, eta *Santa Zezilia biribilketa*, *Betoño*, *Erromerian*, *Gora eta gora beti*, *Euskal Herrian Euskaraz*, *Ixil ixilik*, “eta askoz gehiago” joko dituzte.

DBOR Debabarreneko Orfeoiak ere (argazkian) kontzertua emango du, Santa Zezilia ospatzeko. Aurretik hitzordua zapatuan, azaroaren 22an izango da, Santa Zezilia egunarekin bat eginez. Jose Miguel Laskurainek zuzentzen duen abesbatzak Ermuko Santiago Apostolua elizan kantatuko du, 20:00etan. Bertan eskainiko duten errepertorioa “askotarikoa” izango da, eta espero dute bertaraten den publikoak gozatzea, eta haiekin batera ospakizunean parte hartzea.

Azkenik, **Eibarko Koro Parrokialak** ere asteburu honetan ospatuko du musikari guztien babeslearen eguna: domekan, Karmengo Amaren elizan egingo den 12:00etako mezan egongo dira kantatzen.



Miranderen mendeurreneko berrirakurketa jardunaldia

S.H. Udako Euskal Unibertsitateak *Miranderen berrirakurketa bere mendeurrenean* jardunaldia antolatu du azaroaren 28rako (barixakua). Saio akademikoa Marteskua jauregian egingo da, 09:00etatik 17:00etara, presentzialki, eta guztira zortzi orduko egitaraua eskainiko da. Miranderen pentsamendua, obra literarioa eta garaikidetasuna aztertuko dituzte, hainbat adituk hitzaldien eta mahai-ingururen bidez. Bazkalostean Miranderen gaurkotasunari buruzko mahai-ingurua egingo da, eta eguna poesia errezitaldi berezi batekin borobilduko da, Ipuruako Merkatu Plazan, Joseba Sarrionandia eta Ihitz Iriarten ahotsekin. Egitasmoa literaturan, filosofian, historian, itzulpengintzan eta politikan interesa dutenentzat pentsatu da bereziki, baina “oro har euskal pentsamendu heterodoxoan sakondu nahi duten guztiei” zabalik dago. Interesdunek UEUren bidez eman dezakete izena.

Domekan zabalduko dute Exfibar

S.H. Domekan, azaroaren 23an zabalduko dute Exfibar 2025 - LVI. Sei lu erakusketa Portalean, 12:00etan. Aurtengo gai nagusia Eibarko Filatelia eta Musika Banda da



(Eibarko Bandaren 141. urteurrena dela eta), eta katalogoak haren ibilbide historikoa jasotzen du. Postamarka ere horri eskaini diote (inaugurazio egunean ipiniko dute, 10:30etik 13:30era). Arrate Filatelia Elkarteak antolatzen duen erakusketak ordutegi berezia izango du: asteburuan 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara zabalduko dute, eta astegunetan 18:00etatik 20:00etara.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		4	8	6		3		
2				7			6	
6							2	8
		8			1		7	
			6		7			
	9		2			4		
8	7							5
	1			4				3
		2		5	8	7		

SUDOKUA

6	1	7	8	5	3	2	9	4
3	8	2	9	4	7	1	5	6
5	4	9	6	2	1	3	7	8
1	3	4	5	8	2	9	7	6
2	5	8	7	1	6	9	4	3
9	7	6	1	3	4	8	5	2
8	2	3	4	5	6	7	1	9
4	9	1	3	7	2	5	6	8
7	6	3	2	9	8	4	1	5

8	2	2	9	7	4	6	1	3
7	3	7	6	9	1	5	2	8
5	4	1	3	2	7	9	6	8
6	2	8	3	9	8	7	4	1
1	7	4	1	5	2	7	6	3
9	4	1	7	6	3	5	2	8
3	6	1	8	5	1	6	4	2
4	9	1	5	6	3	9	8	7
2	3	6	8	4	1	9	7	5
5	1	7	2	8	9	6	3	4

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

4				7				
		1	4				8	
2		3	9		5		6	
			7			8		3
1		8			9			
	6		3		8	4		9
	2				6	5		
				4				8

Bilatu alboan dauden objektuak



Azaroak 21 / Azaroak 27

BARIXAKUA 21

MUSIKA

19:00 Xabier Badiolaren kontzertua. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

TIKET-SALMENTA

19:00 Jaixak Herrixak Herrixandakok San Andres bezperarako antolatu duen herri-bazkarirako. Untzaga.

MUSIKA

19:00 Hellwatch (rave punk, Letonia). Ez Dok Zai-Zoi taberna.

ZAPATUA 22

LUZAKETA TAILERRA

09:30/10:15 eta 10:15/11:00 Luzaketak, Nuria Rodríguez Ibarrekin. Ipuruako Merkatu Plaza.

TOPAKETA

10:00/17:30 Dantzan Ikasi IV. topaketa. Markeskua.

SUKALDARITZA TAILERRA

11:00 Azokatik Mahaira", Anne Otegi sukaldariaren eta Aitziber Aizpurua nutrizionistaren eskutik. Antolatzailea: Gipuzkoako Azoken Sarea, Eibarko Udalarekin elkarlanean. Errebal Plaza.

EGOAZIAK 25 URTE

11:00/12:30 Egoaziaren 25 urteko ibilbidea ospatzeko ekitaldia. Portalea.

TXISTORRA EGUNA

11:30 XXI. Txistorra Eguna-ren hasiera-ekitaldia. Egun osoko jaia (12:00/15:00 eta 18:30/21:00). Untzaga (karpa).

SANTA ZEZILIA

12:45 Santa Zezilia kalejira, Usartza Txistulari Bandaren eskutik. Untzagatik.

SANANDRESEAKO LUDOTEKA

16:00/20:30 Mahai-jokoak, adin guztientzat. Odisea elkartearen eskutik. Doan. Errebal Plaza.

ANTZERKIA

17:00 Titirijai Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia: "Alma" (Labu, Katalunia). 5 euro. Coliseo.

DOKUMENTALA

20:00 "No estas loca. La verdad sobre la violencia vicaria", Maria Bestarren idatzi eta zuzendutako dokumentala. Coliseo.

KOMEDIA FEST

20:30 "Gilipollas por el mundo", Carolina Norie-garen eskutik. Uni Eibar Ermua.

SANTA ZEZILIA

00:00 Santa Zezilia sere-nata, Eibarko Musika Bandaren eskutik. Untzagatik abiatuta.

DOMEKA 23

BAKAILAO TXAPELKETA

11:00/12:30 XXXI. Bakailao Txapelketa "San Andres saria". Antolatzailea: Eibarko Udala. Errebal Plaza.

SANTA ZEZILIA

12:00 Eibarko Koro Parrokialaren emanaldia, mezan, Santa Zeziliaren omenez. Karmengo Amaren eliza.

SANTA ZEZILIA

12:30 Santa Zezilia kontzertua, Eibarko Musika Bandaren eskutik. Doan. Coliseo.

ASTELEHENA 24

LIBURU AURKEZPENA

18:30 Ahoztar Zelaietaren "El Pradalismo, el ocaso de los JoBuBi". Arrate Kultur Elkarte.

INFORMAZIO-MAHAIA

18:30/20:00 Beti Eibar akziodunen elkartearen mahai-informatiboa. Untzagako jubiletxea (ataria).

KANTU-SAIOA

19:00 Kantu saio irekia euskal kantak ikasteko. Arrate Kultur Elkarte.

DOKUMENTALA

19:30 No estas loca. La verdad sobre la violencia vicaria", Maria Bestarren idatzi eta zuzendutako dokumentala. Coliseo.

MARTITZENA 25

INDARKERIA MATXISTEN AURKA

11:30 "Indarkeria matxisten aurkako matazak ehuntzen" ekintza kolektiboa, Altzoa alargunen elkartearen eskutik. 13:00 Herri-tarren elkarretaratzea. Untzaga.

INFORMAZIO-MAHAIA

18:30/20:00 "Beti Eibar akziodunen elkartearen mahai-informatiboa. Untzagako jubiletxea (ataria).

AUZO-BILERA

19:00 Amañan bizi direnzentzat. Amañako parrokia.

EGUAZTENA 26

POSTA-MARKA

10:30/13:30 Exfibar 2025. LVI. seilu erakusketaren posta-marka. Portalea.

AUZO-BILERA

19:00 Urkin bizi direnzentzat. Urkiko parrokia.

IPUIN KONTAKETA

18:00 "Hariak, jostorratzak eta zauriak" helduentzako ipuin kontaketa, euskaraz, Mireia Delgadoren eskutik. Andretxea.

EGUENA 27

HITZALDIA

10:00 "Entre el vinculo afectivo y el deseo sexual", Ikasten elkarteak antolatuta. Sarrera librea. Portalea.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emai-leentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

BAKARRIZKETA

18:00 "Umore beltza", Asaari Bibang-en eskutik, eta "Haria eta Berba" film laburraren proiektzioa. Doan. Antolatzailea: Eibarko Inklusio Mahaia. Coliseo.

ERAKUSKETAK

Azaroaren 23tik 29ra
Exfibar 2025. LVI. seilu erakusketa. Portalea.

Azaroaren 1etik 30era
"Indarkeria matxistaren aurkako memoria-lekuak", Mugarik Gabe-ren eskutik. Andretxea.

Azaroaren 23ra arte
"Gipuzkoako Artisten

ZINEA COLISEO



"Gaua"
BELDURRA.FANTASIA
2025/Euskal Herria/93'
Zuzendaria: Paul Urkijo Alijo
Aktoreak: Yune Nogueiras, Ane Gabarain, Elena Irureta, Iñake Irastorza
Sorginkeria. Munstroak.
Euskaraz, gaztelerazko azpitituluekin.

1 ARETOA
• **22an:** 17:00
ANTZOKIA
• **22an:** 19:45, 22:30
• **23an:** 17:00
Zuzendariaren aurkezpenearekin 20:00
• **24an:** 19:30



"Leo & Lou"
DRAMA.KOMEDIA
2025/Espainia/101'
Zuzendaria: David Trueba
Aktoreak: David Verdaguer, Amaia Salamanca, Isabelle Renauld.
Road movie. Arrantza.

1 ARETOA
• **22an:** 19:45, 22:30
• **23an:** 17:00, 20:00
• **24an:** 19:30



"Bugonia"
KOMEDIA.ZIENTZIA-FIKZIOA.
2025/Irlanda/118'
Zuzendaria: Yorgos Lanthimos
Aktoreak: Emma Stone, Jesse Plemons, Aidan Delbis, Stavros Halkias.
Estralurtarrak. Remake.

2 ARETOA
• **22an:** 22:30
• **23an:** 20:00
• **17an:** 19:30



"El colegio de los animales mágicos"
FANTASIA.ABENTURA
2025/Alemania/105'
Zuzendaria: Sven Unterwaldt Jr.
Aktoreak: SEmilia Maier, Leonard Conrads, Loris Sichrovsky.
Familia zinema. Animaliak.

2 ARETOA
• **22an:** 17:00
• **23an:** 17:00

"No estás loca"
DOKUMENTALA.
2025/Espainia/85'
Zuzendaria: María Bestar
Aktoreak: Luis Tosar, Maxi Iglesias
2 ARETOA
• **22an:** 20:00
• **24an:** 19:30



Leandro Luengo Sainz

4. URTEURRENA
2021/11/20

Beti gure bihotzetan

Maite zaitugu
- ETXEOAK -





Javier Usobiaga Barrenechea

3. URTEURRENA
2022/11/19

"GURE BIHOTZETAN
BETIRAKO
IZANGO ZAITUGU"

ASKO MAITE ZAITUGU
- ETXEOAK -



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **MIKEL!**
Urtetxo bat gure etxeko txikixak! Askok maite zaittugu. Patxo bat famelixa guztian partez.



Zorionak **LORE!**
Aslehenian 9 urte beteko dozuz. Musu potolo bat printzesa, etxekuen eta, batez be, Oierren partez,



Zorionak, **JOSEAN!**
Domekan urtiak beteko dozuz eta. Ondo ondo ospatu! Segi betiko moduan, Amañako jaixak barriz ospatzeko desiatzen gaioz eta!



Zorionak **JANIRE!**
Gaur zure urtebetetzia da! Musu erraldoi bat zure famelixaren eta, batez be, Mateo eta Vegaren partez! Pila bat maite zaittugu.



Zorionak **AMETS!**
Domeka honetan 8 urte egitteko irrikitan zaude. Espero dogu oso ondo ospatzia. Maite zaittugu.



Zorionak **ANDER!**
Domekan, azaroak 23, 8 urte beteko dozuz. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Julenen partez.



Zorionak **GEMMA** eta **VICTORIANO!**
Urriaren 11n zuen urrezko ezteiak ospatu zenduezen-eta.



Zorionak **NILE** eta **JULE!**
Hilaren 19an 2 urte bete zenduezen eta. Jarraitu hain saltserak izaten. Musu haundia etxekuen eta, batez be, zuen ahizpa Marenen partez



Zorionak **MADDI** eta **JARE!**
13 urte dagoeneko. Jarraitu hain alai eta zintzo. Musu haundi bat. Askok maitte zaittuegu.



Jose Luis
Ramon De la Vega

2025/11/18

Zure bizipoza eta prestutasuna beti izango ditugu gogoan.

TARIÑA ELKARTEKO
LAGUNAK



Nelly
Goin Iriondo

2025/11/07

Gure bihotzetan bizirik jarraituko duzu.

- ETXEKOAK -



Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskeraek
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

- 1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
 - Pisua salgai, guztiz hornitua erdigunean. Txaltxa Zelai inguruan. 631579498.
- 4. LANA**
4.1. Lan bila
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edota ostalaritzan sukalde laguntzaile bezala. 602051567.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako, interna bezala edota ostalaritzan sukalde laguntzaile bezala. 747495356.
 - Gizona eskaintzen da zainketa lanak egiteko, orduka edo jardunaldi osoa. 641834341.
 - Gizona eskaintzen da pintura, elektrizitate, igeltseritza eta zurgintza lanak egiteko. 641838914.
 - Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako, nagusiak eta umeak zaintzeko, baita garbiketa lanetarako ere. 641781229.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gabaz, 21:00etatik 09:00etara, etxe edota ospitalean. 613287661.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. 632642320.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak, umeak eta txakurrak zaintzeko, zein tabernetan lan egiteko. 632119320.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko, baita txakur ileapaintzaile bezala ere. 624830282.
 - Emakumea eskaintzen da na-

- gusiak zaintzeko, egunez edo gauez. 643768260
- Emakumea eskaintzen da zaintza lanetarako, garbiketa lanetarako edota sukalde laguntzaile bezala aritzeko. 604121670.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edota ostalaritzan sukaldean aritzeko. 600073104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako, asteburuetan. 624533959.
- Emakumea eskaintzen da ostalaritzan zerbitzari edota sukalde laguntzaile aritzeko, zein nagusiak edo umeak zaintzeko. 631228039.
- Emakumea eskaintzen da ume eta nagusiak zaintzeko, baita garbiketa lanetarako ere. Erabateko prestutasuna. 631483249.

- 4.2. Langile bila**
 - Estetizista behar da Eibarko ileapaindegi batean lan egiteko. Lan-giro paregabea. 943208125.
 - Astelehenetik ostiralera neska gaztea hartuko nuke pasiatzen eta beste zereginetan laguntzeko. 686391904. Gorka.
 - Sukaldaria behar da Eibarko taberna batean, barran zerbitzatzeko ezagutzarekin. Informazio gehiago Orbela tabernan. 660460295.
 - Depor tabernan kamareroa/zerbitzaria behar da barixaku-astelehena bitartean lan egiteko. 665726146.

- 5. IRAKASKUNTZA**
5.2. Eskaintzak
 - DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
 - Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
 - DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukea. 677592509. Alberto.
- 6. DENETARIK**
6.1. Salgai
 - Txakurrentzako edo katuentzako transportina salgai. 37 zm. zabalera/45 zm. altuera/61 zm. sakontasuna. Estreintzeko. 20 euro. 688626914.
 - Gurpildun aulki elektrikoak salgai. 60 zm. zabalera 90 zm. sakonera. 1.800 €. 688847237 eta 656756470.
 - Oso gutxi erabilitako sehaska zuri lakatua salgai, koltxoi eta guzti. 679184531.

ALAIA MARTIN

Gai jartzailea:
**MIKEL
ARRILLAGA**
Sarrerak 8€
(leihatilan)

SAN ANDRES BERTSO JAIALDIA

ENERITZ ARTETXE

JOANES ILLARREGI

SUSTRAI COLINA

UNAI ITURRIAGA

2025.11.28 - 20:00 COLISEO (EIBAR)

“Ez bazaude
Interneten, ez
zara existitzen”,
diote Errekatxu
Berri ezagutzen
ez dutenek.



Errekatxu Berri da zure
negozioaren giltza; zatoz.
Lokalak eta **garajeak** salgai,
estreinatzeko prest.



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir